

argazkigintza > argi-itzalak

Gehiago ikusteko bidea

Jose Luis Iturbururen buruan irudiek leku handia dute. Ezin bestela izan Gipuzkoako Argazkilari Elkarteko irakaslea izanda.

IDOIA ETXEBERRIA

Gehiago ikusteko bidea da argazkilaritza Jose Luis Iturbururentzat. «Kamerarekin irudiaren bila ibiltzeak gehiago ikustera zaramatza, beste batzuek segurue- nez ikusiko ez dutena ikustera». Ikusitako horrekin zer egiten duen? Gorde, txukundu eta erakutsi; lagunei, senideei. Eta gogoratu: paisaiak, aurpegiak, momentuak, lekuak. Joandako bizitza pusketa koloretsuak.

Mutikotan hasi zen argazkiak ateratzen, «mendizaletasunak bultzatuta; gustatzen zitzaizkidan paisaien eta lekuen irudiak gordetzeko». Bizilagun batek lagundu zion argazkigintzan barnatzen. «Kamera erabiltzen; zein kamera erosi ere aholkatu zidan». Gipuzkoako Argazkilari Elkartekoa zen hura, «beteranoa». Eta orain baita Iturburu bera ere. «Duela 40 urte sartu nintzen». Bertako presidentea ere izan zen lau urtez. Eta elkarteko irakasleetako bat da, duela 25 urtetik. «Ni hasi nintzenez ez zegoen ikastarorik, bertako jendeak zekiena erakusten zizun».

Garai hartan, «etxeko komuna zen gela iluna; leihoa itxita, argirik ez sartzeko!». Orain argazkilari gehienak digitalarekin dabilta. Bera ere bai. Hala ere, oraindik gela iluna nola erabili erakusten dute elkartean, «ezer baino gehiago jendeak jakin dezan zer den, nondik datorren hau guztia». Orain ordenagailua gailendu da, eskanerra, Photoshop... Dena aldatu da. Erosoagoa ote den, zalan-tzak ditu Iturburuk: «Kalitate handiko argazkiak eginez gero, ehun sartzen dira tarjeta bakoitzean, eta, beraz, disko gogor eramangarria beharrezkoa da. Bidaia batean 1.500 argazki atera badituzu, ber- riz, hortik 300 inguru aukeratzen jakin behar duzu: garbitasuna egiten. 10-12 paperera ateratzeko, ordu asko eman behar dituzu orde- nagailuan».

Iturburuk mendiko argazkiak egiten jarraitzen du, euskal baso eta mendietakoak. Bidaietan ere ez ditu argazki gutxi ateratzen: «Europa, herrialde exotikoak... Erretratuak, paisaiak eta xeheta-

■ norrasun aqiria

■ **Izena:** Jose Luis Iturburu.

■ **Jaio:** Donostian, 1934an. «Batataren belaunaldikoa naiz, gose garaikoa».

■ **Ogibidea:** Delineatzailea eta industria peritua, baina erretiroa hartuta dago.

■ **Argazkilaritza:** Hamar urterekin hasi zen, mendiko argazkiak egiten. Bizilagun batek sartu zion harra. Gipuzkoako Argazkilari Elkarteko kidea eta irakaslea da aspalditik.

■ **Sariak eta erakusketak:** Azkenaldian ez du lehiaketetan parte hartzen, baina askotan egokitzen zaio epaimahaiko kide izatea. Ilusio handien egin dion saria Argizaiola da, duela 20 bat urte lortu zuen. Oraintsu egin du azken erakusketa: urtar- rilean, Noventa Grados aretoan: *Sentsazioak*.



■ **www.federacionfotovasca.org**

sunak». Sentipenak batzen ditu, komposizioari garrantzi handia emanez betiere, «argazkien geometriari. Gizakia ere asko interesatzen zait. Eta animalia arraroren bat ikusten badut ere, ez dut aukera galtzen. Teleobjektiboa gertu izaten dut beti!».

Emazteak laguntzen dio bidaia eta txango gehienetan. «Berak ez



Ushuaia (Argentina), itsasontzia eta behe lainoa.

du argazkirik egiten, baina ondolan egotea gustatzen zaio, gero argazkiak ikustean gogoratzeko. Gutxinaka-gutxinaka argazki interesgarrien biduma egiten ari naiz. Hortxe egongo dira, ondorengoendako. Ez dakit zer egingo duten, gorde ala bota! (kar, kar)».

Argazkilari elkartea ere bere «bizimoduaren zati bat» dela dio. Hango lagunekin iritzia trukatzeara oso gustuko du, «eta Parte Zaharrean pintxoak janez berrikeretan jarraitzea. Giza harremana ere argazkilaritzaren parte da!». Aldizkari teknikoak irakurtzea da haren zaletasunetako bat: argazkilaritza, zientziak eta ikerketak... Primeran dator kio, egunean egon beharra baitago eskolak emateko. «Funtsezkoa da merkatura zer irten den eta nolakoa den jakitea».



Iguazuko txori papar-gorri bat (Argentina).



Birmaniako gizon bat.



Iratiko basoa.